

OINARRIZKO BEHARREI ERANTZUTEKO EGUNEKO ZERBITZUA (GARBITZEA, JATEA, LAGUNTZA PUNTUALA...)

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

CREA CONTENIDO RICO CON BLOQUES Y PATRONES

Gizarte-bazterketa egoeran dagoen pertsona > Eguneko arreta eta gizarteratzeko laguntza

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

18 urte edo gorako pertsonak, **gizarte-bazterkeria egoeran** daudenak.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Bazterkeria egoera.

18+ urte.

Zertan datza?

Eguneko arreta-zerbitzua, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen espazio bat eskaintzen diona egunean zehar bertara joateko eta beren oinarrizko beharrak asetzeko, non babestu, garbitu eta jan ([1.7 fitxa](#)). Halaber, kontsignara eta garbitegira sartzeko aukera ematen du, kasuan kasu. Urgentziazko egoerei erantzuten diete, eskakizun txikiko eta aldi baterako erabilerako zerbitzu baten bidez. Gainera, informazioa eta orientazioa ematen dute, baita esku-hartze psikosoziala ere

(entzute aktiboa eta emozioei eustea).

Norentzat?

18 urte edo gehiagoko pertsonak, **gizarte-bazterketa egoeran daudenak**.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

18 urte edo gehiago izatea.

Intentsitate txikiko laguntza behar izatea, preskripzio teknikoaren arabera.

Baldintza bakarra preskripzio teknikoa da; zuzeneko sarbideko zerbitzua da, hau da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzutik aurretik pasatu gabe eskura daiteke zerbitzua.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

[Kontsultatu informazio osoa](#)